

70. HAMARKADAREN KRISIA, NEOLIBERALISMOAREN HEDAPEN IDEOLOGIKOA ETA POLITIKA ANTIDEMOKRATIKOEN BIDEA

Gradu Amaierako Lana

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea

Gradu bikoitza

2022/2023 Ikasturtea

Egilea: Olaia Alonso de la Varga

Zuzendaria: Ernesto Lopez Losa



El neoliberalismo es un intento de propagar la desigualdad

argumentando que no hay alternativas. Pero las hay.

Immanuel Wallerstein

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	4
1. SARRERA	5
2. 70. HAMARKADA EZEGONKORRA: HAZKUNDEAREN AMAIERA ETA KRISI BORTITZA.....	8
2.1. Hazkunde ekonomikoaren mugak.....	9
2.2. Inflazioa eta langabezia hamarkadaren protagonista nagusiak	11
2.3. 1973ko petrolio-enbargoa	14
2.4. Estanflazioa figura berri gisa.....	15
2.5. Keynesianismoaren bukaera	16
3. HERRIALDE PERIFERIKOEN ZORPETZEA.....	18
4. MUNDU BERRI BAT: NEOLIBERALISMOAREN HEDAPENA.....	22
4.1. Neoliberalismoa interbide bakar bezala: ideologia eta programa politikoa	22
4.2. Txile: lehen entsegu orokorra.....	23
4.3. Thatcherismoa: neoliberalismoaren globalizazioa.....	25
4.4. Ronald Reagan: haustura sozialean oinarritutako hazkundera.....	28
5. IDEOLOGIA NEOLIBERALAREN ETA DEMOKRAZIAREN ARTEKO KONTRAESAN KONPONEZINAK	33
6. ONDORIOAK.....	35
7. BIBLIOGRAFIA.....	38

LABURDURAK

BIRD: Banco Internacional de Reconstrucción y Desarrollo

CEPAL: Comisión económica para América Latina y el Caribe

CIA: Agencia Central de Inteligencia

EEE: Europako Ekonomia Erkidegoa

GATT: General Agreement on Tariffs and Trade

FMI: Fondo Monetario Internacional

OCDE: Organización para la Cooperación y Desarrollo Económicos

OPEP: Organización de Países Exportadores de Petróleo

1. SARRERA

Ez dago alternatibarik. Margaret Thatcherrek bere hitzaldi eta elkarrizketetan hainbeste erabili zuen esaldi honek ideologia neoliberalaren izaera hedakor eta totalizatailearen funtsa bera erakusten du. XX. mendearen lehen erdialdeko erregimen totalitarioak (nazismoa, faxismoa eta sobietar komunismoa) mende horren bigarren erdian ordeztu ziren, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera, itxuraz kontrajarria zen ideologia batengatik, zeinaren izaera formalki demokratikoa den. Bi hedapenen artean, teoria keynesiarrei eta Europako politika sozialdemokratei buruzko hiru hamarkada inguruko parentesi bat baino ez zen egon. Industria-tradizio luzeena duten herrialde kapitalistetan magnitude makroekonomiko handien kontrol publikoko estrategiekin lotuta egon zen. Estrategia horiek lotuta egon ziren Keynesiar politikekin eta, oro har, eskari-maila handiak eta bake sozial onargarria bermatzeko mekanismoak bilatzearekin. Arautze-sistemaren arrakastak Mendebaldeko Europako eta Ipar Amerikako herrialde kapitalista aurreratuenetan hazkunde ekonomiko historikoa lortzen lagundu zuen, bereziki II. Mundu Gerratik aurrera.

Suntsiketa belikoa handia bazen ere, Bigarren Mundu Gerraren ondorioak denbora laburrean berreskuratu ziren. Gainera, nazio industrializatuen historian hazkunderik handiena izan zuen aldia bilakatu zen, Urrezko Aroa deiturikoa, 1973an amaitu zena petrolioaren krisialdiarekin. Estatu Batuak nagusi zen esparru instituzionalak eta sektore publikoaren esku-hartzearen gorakadak ordura arte ezagutzen ez zen ongizate-maila ekarri zuen. Gerraostearen ondoren, gobernuek lankidetzaren areagotzeko eta susperraldia eta egonkortasuna ahalbidetuko zuten akordioak lortzeko borondatea izan zuten. Prozesu hori Estatu Batuek bultzatu eta zuzendu zuten, hasierako adostasun horiek Bretton Woods-en akordioetan gauzatu zirelarik, 40 herrialde baino gehiagok sinatuta 1944an. Akordioen muina moneta-sistema berri bat ezartzea eta bi erakunde sortzea izan zen: Nazioarteko Diru Funtsa (FMI gaztelaniazko siglengatik) eta Berreraikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Bankua (BIRD, aurrerantzean, Munduko Bankua). Moneta-sistema truke-tasa finkoetan, lehiakortasun-debaluazioak eragozteko, eta, aldi berean, doigarrietan, urre-patroiaren zurruntasuna gainditzeko asmoz, oinarritu zen. Sistema berrian, dolarra nazioarteko dibisa bihurtuko litzateke, AEBk munduko urre-erreserba handienak izanik¹.

¹ BETRÁN PEREZ, Concepción; CALATAYUD GINER, Salvador; CERVERA FERRI, Pablo; CUBEL MONTESINOS, Antonio; CUEVAS CASAÑA, Joaquim; DíEZ MINGUELA, Alfonso; MARTÍNEZ GALARRAGA, Julio; ÁNGELES PONS BRÍAS, María; SANCHIS LLOPIS, M^a Teresa; eta TIRADO FABREGAT, Daniel A. (2014). *Los tiempos cambian. Historia de la economía*. 199. or.

Estatu Batuetako ekonomia zen beste batzuek behar zituzten ondasunak hornitzeko gai zen bakarra eta 1947an argi zegoen Ipar Amerikako esportazioak oso murriztuta egon zitezkeela arazo horren ondorioz, horrek arriskuan jartzen zuelarik herrialde hartako produkzioa eta enplegua. Urte horretan bertan, AEBetako gobernuak laguntza-programa handi bat sortu zuen, European Recovery Program izenekoa, Marshall Plana bezala ezagunagoa². Bigarren Mundu Gerratik aurrera, herrialde industrializatuak, oro har, aurretik ezagutu ez zituzten eta gerora berriro ezagutuko ez zituzten tasetara hazi ziren. Mendebaldeko Europan, BPGaren urteko batez besteko hazkundera %4,6koa izan zen 1950 eta 1973 bitartean, 1890-1913 aldian %2,5ekoa eta 1913-1950 aldian %1,4koa soilik izan zenean³. Europak eta Japoniak azkar hartu zituzten Ipar Amerikan duela hamarkada batzuetatik hona garatu ziren ekoizpen-teknikak eta sistemak: fordismoa eta masa-ekoizpena. Beste faktore batzuek ere lagundu zuten aldiaren hazkunde azkarra. Horietako bat Europako herrialdeek eta Japoniak aurkitu zuten lan ugartasuna da. Nekazaritzan biztanleria aktiboaren proportzio handia egoteak eta emakumeen eskulana sartzeak industrian eta zerbitzuetan lan-bolumen handia izatea eragin zuten. Gainera, hezkuntza-kualifikazioan izandako hobekuntzek eta faktoreen produktibitatea hobetzeak hazkunde handia eragin zuten.

Urrezko Aroaren hazkunde azkarra garapenaren eta egonkortasun sozial eta ekonomikoaren aldeko erakundeen esparruan gertatu zen. Hiru elementuren arteko erlazio konplexua sortu zen. Alde batetik, Estatuaren paper ekonomikoa handitu egin zen hainbat arlotan, gastu publikoa handituz, zergen igoera ekarri zuenak. Estatuaren interbentzionismoa teoria ekonomiko keynesiarrak babesten zuen. Merkatu-ekonomiaren eta Estatuaren esku-hartze handiaren konbinazio horri merkatuko gizarte-ekonomia edo ekonomia mistoa deitu zitzaion, eta egonkortasun makroekonomiko nabarmena eskaini zuen. Bestalde, sindikatuen zeregina erabakigarria izan zen. Enpresa pribatuak inbertsio-tasa handiak izan zituen. Enpresaburuek sindikatu-boterea onartzen zuten, eta, horren truke, gizarte-giro

² Marshal Planaren funtzionamendua: Europako gobernuak beren herrialdeetako enpresetatik jasotzen zituzten behar zituzten ondasunak eta lehengaiak, eta Estatu Batuetako Gobernuari eskatzen zizkieten. Azken honek, enpresa iparramerikarrei erosten zizkien, eta doan hornitzen zizkion Europari. Enpresa hartzaileek beren gobernuari ordaintzen zieten ondasun horien zenbatekoa, eta, kobrantza horiekin, berreraikitze-lanetarako funts bat sortu behar zuten herrialde onuradunek.

³ BETRÁN PEREZ, Concepción; CALATAYUD GINER, Salvador; CERVERA FERRI, Pablo; CUBEL MONTESINOS, Antonio; CUEVAS CASAÑA, Joaquim; DíEZ MINGUELA, Alfonso; MARTÍNEZ GALARRAGA, Julio; ÁNGELES PONS BRÍAS, María; SANCHIS LLOPIS, M^a Teresa; eta TIRADO FABREGAT, Daniel A. (2014). “*Los tiempos cambian...*” op. cit., 209. or.

mesedegarri baten onura jasotzen zuten, greben ondorioz arriskuan zegoen masa-ekoizpena ahalbidetzeko funtsezkoak.

Soldatak produktibitatea baino gutxiago igotzen ziren, eta horrek inbertsioa sustatzen zuen, baina, aldi berean, bizi-mailak eta lan-baldintzak hobetzen ziren. Enplegu betetik hurbil zegoen egoera batera iritsi zen, eta Europako batez besteko langabezia-tasa %1,5ekoa izan zen hirurogeiko hamarkadan. Ondorioak bikoitzak izan ziren: eremu soziopolitikoan, desberdintasunek behera egin zuten ia herrialde industrializatu guztietan, eta, ondorioz, sistema politiko demokratikoen legitimitatea eta egonkortasuna areagotu ziren; arlo ekonomikoan, benetako diru-sarreraren hobekuntzak eskaria eta masa-konsumoa sustatu zituen, industriaren hedapenaren oinarriak. Eta enpresa publiko anitzak sortu ziren osasunaz eta hezkuntzaz aparte, besteak beste energian, errepideetan, trenbideetan, edota telekomunikazioetan, oinarritzotzat jotzen ziren ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko asmoz⁴.

Hala ere, 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadaren hasieran, jatorri desberdineko faktore multzo bat dela eta, gobernuen kontroletik haratago kokatuak askotan, sistema higatzen hasi zen, ordurarte ezagutzen ez zen estanflazioa bezalako figurak agertuz. Inflazioaren eta langabeziaren arteko harreman enpiriko negatiboa azaltzen zuen teoriak bat-batean errealtatea islatzeari utzi zion, eta azkar geratzen da atzean aurreko hiru hamarkadetako keynesianismoa. Friedmanen hitzetan, aldaketa bat behar zen, eta alternatiba bat prest zegoen: programa neoliberalak, zeinak abiapuntu gisa keynesiar politiken kritika zuen.

Une horretatik aurrera, presio teoriko, ideologiko eta politiko frenetiko bat hasi zen mundua merkatu desarautu handi bat bihurtzeko, non gizakiak bere bizitza eta interesak enpresa multinazionalen planen menpe jartzen dituen. Globalizazioa ideologia horren mundu mailako hedapenaren ondorio logikoa izan zen.

Krisia zela eta, herrialde periferikoen finantzaketa-beharrak areagotu zituzten haien zorpetze maila handituz, kanpoko maileguak izan zirelarik krisiaren eragina moteltzea ahalbidetu zutenak. Herrialde periferiko gehienetan bezala, Txilek Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtzaren maileguetara jo behar izan zuen, bankuen jabetza normalizatzeko

⁴ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). *Historia mínima del neoliberalismo*. Turner Publicaciones. 200-204. orr.

eta geratzen ziren enpresa publikoen pribatizazioa bizkortzeko konpromisoa hartzearen baldintzapean eman zitzaiena. Ikusiko dugun bezala, Txile orduan munduko laborategi neoliberalizat hartu zen, ateak ireki zizkionak neoliberalismoa mundu osoan zehar garatzeari. 70eko hamarkadako krisitik aurrera, ideologia horrek leku hegemonikoa hartu zuen munduan. Laurogeiko hamarkada ideologia neoliberalaren sorrerak markatu zuen, Margaret Thatcher Erresuma Batuko lehen ministro eta Ronald Reagan AEBetako presidente hautatu ondoren. Aldi horretan, herrialde boteretsuenen politika ekonomikoak hainbat merkatu desarautzera, zenbait enpresa pribatizatzen eta nazioarteko lehiakortasuna handitzera bideratu ziren. Bi nazioetan, neurri horien osagarri, biztanleriaren maila aberatsenei zergak murriztu zitzaizkien, eta gastu soziala nabarmen murriztu zen. Bi herrialdeak aukera bikaina dira doktrinaren eta praktika politiko neoliberalaren ondorioen garrantzia aztertzeko. Dena den, azter ditzagun 70. hamarkadako krisiaren aurrekariak, ondorioak eta neoliberalismorako joera ekarri zuten faktoreak lehenago.

2. 70. HAMARKADA EZEGONKORRA: HAZKUNDEAREN AMAIERA ETA KRISI BORTITZA

Aurreko puntuan aurreratu dugun bezala, Europako gerraoste luzean, 1945etik aurrera, erdialdeko herrialdeetan ongizate-estatu eraginkorra eraiki zen, gehienei urte gutxi batzuk lehenago imajinaezina izango zen bizi-maila ematen ziena. Keynesiar ereduak funtzionatzen zuen: merkatu arautuak, fiskalitate progresiboa, Estatuaren esku-hartzea, kontratu kolektiboak, gizarte segurantzak, politika kontra-ziklikoak, hezkuntza publikoaren hazkuntza, osasun publikoko sistemak, langabezia-aseguratuaren agerpena, soldaten igoera... Leku guztietan, arrakasta handiagoarekin edo txikiagoarekin, garapena bultzatu nahi zen, protekzionismoa, enpresa publikoak, azpiegituretako inbertsioa, zerga-pizgarriak, kontsumorako laguntzak edota gastu soziala konbinatuz; nonahi hazten zen ekonomia, kontsumoa handitzen zen, alfabetatzea eta eskolatzeko indizeak gora egiten zuten bitartean.

Egoera aldatu egin zen, ia gauetik goizera, hirurogeita hamarreko hamarkadan. Hamarkadako irudia nahiko lausoa da. Batez ere, hirurogeiko hamarkadak utzitako irudiarekin alderatuta: gazteen errebelia, rock musika, drogak, debekuen debekatzea... Gizarte-egonkortasun erlatiboko eta hazkunde ekonomikoko aurreko bizpahiru hamarkadekin kontrastean, jai-giroko errebelia baten aldean, hirurogeita hamarrak urte mingotsak dira,

ezegonkortasun, langabezia eta krisi ekonomikoko urteak, greba-urteak, manifestazio bortitzak eta pobretze masiboa izanik protagonista nagusiak⁵.

2.1. HAZKUNDE EKONOMIKOAREN MUGA

Ia bi hamarkadako hedapenaren ondoren, hirurogeiko hamarkadaren amaieran bai AEBetan bai Mendebaldeko Europan, Bigarren Mundu Gerraren ondoren hazkundera bultzatu zuten faktoreek ahultze zantzuak erakutsi zituzten. Lehenik eta behin, erakundeen abantailak, batez ere merkataritza- eta diru-akordioak, agortuak ziruditen. Gainera, Bretton Woodseko nazioarteko moneta-sistemak zailtasun handiak zituen, ez baitzen egokitzen nazioarteko egoera ekonomiko berrira. Alemania edo Japonia bezalako herrialdeen hazkunde-tasa altuek, berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetan, beren monetak dolarraren aldean indartzea ekarri zuten, baina dolarra ez zen debalutua izan eta AEBk defizit komertzial eta defizit publiko gero eta handiagoi aurre egin behar izan zien. Estatu Batuetako egoera ekonomikoaren okerragotzeak, eta Vietnamgo Gerra bezalako gertaerek, dolarrarekiko mesfidantza sustatu zuten eta honen aurkako espekulazio mugimenduak eragin zituzten, azkenik, 1971n bere bihurtasun eza aldarrikatzea behartuz. Ordura arte ontza 35 dolarretan zegoen, eta nazioarteko moneta-sistemaren oinarria zen. Zorraren pisuak, gastu militar gero eta handiagoak, Gerra Hotzak zekartzan konpromiso finantzarioek eta horregatik guztiagatik ordaintzeko dolar jaulkipen masiboak ezinezko egiten dute kanbio-tasa mantentzea: ez dago urte nahikorik Ipar Amerikako errezerban moneta-papera babesteko. Neurriak era guztietako ondorioak ditu, partida berri bat irekitzen du nazioarteko ekonomian, baina, zalantzarik gabe, kolpe handia da Estatu Batuen irudiarentzat. Ordutik aurrera, moneta guztiak flotazioan sartzen dira, dolarrari zuzenean lotzen ez bazaizkio, eta moneta-sistema osoa ezegonkortasun-aldi batean sartzen da. Dolarrak erreferentziazko moneta izaten jarraitzen du, inolako lehiarik gabe euroa sortu arte, baina terminoak oso desberdinak dira. Bretton Woodsen sistema kolokan jarri zen eta kanbio-tasa finkoen sistema batetik kanbio-tasa flotagarri edo malguetako sistema batera igaro zen, non parekotasunak txanpon ezberdinen eskaintzaren eta eskariaren arabera zehazten ziren. Une horretatik aurrera dolarra moneta fiduziariora izango da, hau da, bere balioa ez dago errezerba metalikoen mende, baizik eta harekiko konfiantzaren mende.

⁵ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). "*Historia mínima...*" op. cit., 91. or.

Mundu librearen lider gisa nazioartean duen prestigioarentzat, larriagoa da Vietnamgo egoera. 1970ean Nixonek Kanbodia inbaditzea agindu zuen. Mundu osoko prentsak Saigonen erretiratze dramatikoaren irudiak erreproduzitzen ditu, gerra galduta. Baina okerrena barnean gertatzen dena da: Pentagonoko paperek, gobernu federala engainatzen aritu zela frogatzen dute, Kennedy, Johnson eta Nixon besteak beste, publikoki gezurretan aritu ziren, ez soilik gerraren kostuz baizik eta baita Estatu Batuen konpromisoaren tamainaz, hedatutako tropen bolumenaz eta Vietnamgo misioaz ere⁶.

Beste alde batetik, produktibitatean etengabeko hobekuntzak lortzeko zailtasun larriak zeuden, berrogeita hamar eta hirurogeiko hazkunde intentsiboaren ereduaren oinarria izan zirenak. Ia herrialde guztietan produktibitatearen hazkundeak behera egin zuen hirurogeiko hamarkadaren amaieratik, eta 1973ko krisiarekin batera azkartu egin zen. Ezinezkoa zen produktibitatea handitzen jarraitzea, baliabideak nekazaritzatik industriara aldatuz, herrialde askotan egitura-aldaketa burutua zegoelako eta, gainera, tertziarizazio-prozesua bizkortzen ari zelako; baina zerbitzuen sektorea intentsiboa zen eskulanean, eta produktibitatearen hazkundera txikiagoa zen industrian baino.

Gainera, hirurogeiko hamarkadako hazkunde-iturri nagusietako bi agortu ziren: hobekuntza teknologikoak eta kapital-stockaren hazkundera. AEBetako lidergo teknologikoa *mass production* edo kontsumo masiboko industriak sendotzean eta garatzean oinarritu zen (baliabide naturalen ugaritasunari eta herrialdeko merkatuaren tamaina handiari esker), baita maila teknologiko altuan ere, I+Gko inbertsio-tasa altuen bidez (publikoa eta pribatua) eta hezkuntza zientifiko eta teknikoaren maila onaren bidez. Hala ere, muga-zergen beherapenek, garraio-kostuen jaitsierak eta integrazio-prozesuek, bereziki EEEk, merkatuaren tamainarekin lotutako abantaila konparatiboa murriztea eragin zuten.

Hazkunde ekonomikoa moteltzeaz gain, lan-merkatuan aldaketa garrantzitsuak ikusten dira. European langabezia-tasa txikiak eta hazkunde ekonomikoa soldaten aldarrikapenak bultzatu zituzten. Horrela, 1968ko maiatzeko matxinadaren ondoren Frantzia gutxieneko soldata ehuneko 35 igo zen, igoera hau Europako beste herrialde batzuetara hedatuz, hala nola Belgika, Italia, Holanda edo Irlandara. Soldata errealak nominalen erritmo berean hazi ez baziren ere, kostuen igoera horrek irabazietan beherakada bat eragin zuen, eta

⁶ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). "*Historia mínima...*" op. cit., 94. or.

inflazio-prozesua elikatu zuen, baita petrolio-krisia piztu aurretik ere. Hirurogeiko hamarkadaren amaieran gainera, gorabidean zeuden herrialde berrien hazkundeari lotutako lehia handitu egin zen. Japoniak, Hong Kongek, Taiwanek, Singapurrek, Hego Koreak, Malaysiak, Thailandiak edo Vietnamek (eta 1978tik aurrera Txinak) batez besteko hazkunde-tasa handiak lortu zituzten 1960-1970 aldirako, %8tik gorakoak japoniarren kasuan, eta %4tik %5era bitartekoak gainerako herrialdeetan⁷.


2.2. INFLAZIOA ETA LANGABEZIA HAMARKADAREN PROTAGONISTA NAGUSIAK

Aipatu izan dugun bezala, hedapen handiko aurreko etapa amaitu egin zen. OCDEko⁸ herrialde guztietan, BPGaren hazkundera urteko %5etik %2,5era jaitsi zen 1970-1978 urteetan. Ekialdeko Asian berriz, 1970 eta 1980 arteko hazkunde-tasak %5 inguruan mantendu ziren, eta Latinoamerikak ere erritmo altuan hazten jarraitu zuen, baina gero eta desoreka handiagoekin. OCDEko herrialde gehienek gainera, %10etik gorako inflazio-tasak izan zituzten. Hirurogeiko hamarkadaren amaieran inflazioa hazten hasi bazen ere, bere maila altua eta iraunkorra hirurogeita hamarreko hamarkadako figura bereziena izan zen, hazkunderaren moteltzea baino gehiago. AEBetan adibidez, 60ko hamarkadan inflazioa %2-%3 inguruan mantentzen zen bitartean, 1971 eta 1973 artean %5era igo zen, 1974-1975ean %10era eta 1979-1980 bitartean %13ko gailurrera iritsi zen, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala:

⁷ PALAFOX GÁMIR, Jordi, ed. (2014). “*Los tiempos cambian...*” op. cit., 255. or.

⁸ Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea (OCDE gaztelaniazko siglengatik)

1. irudia: AEB eta OCDEko inflazio-tasak (1960-1990):



Iturria: OCDE, Economic Outlook Database


<https://data.oecd.org/price/inflation-cpi.htm#indicator-chart>

Argitu beharra dago inflazio handiak ez zuela arrazoi bakarra izan. Lehenik eta behin, soldata-igoerak. Hirurogeiko hamarkadaren erdialdean hasitako joerari jarraituz, soldatek gora egiten jarraitu zuten. Aldi horretan, herrialde askotan, sindikatuek, prezioen igoerei aurrea hartzen saiatzeko, iraganeko inflazioan oinarritu zituzten beren soldata-eskakizunak, eta soldatak negoziatzeko mekanismo horrek prezioen igoera elikatu zuen. Bigarrenik, uzta txarrekin lehengai eta elikagai batzuen prezioen igoera eragin zuten. Eta azkenik, jarraian aztertuko dugun petrolioaren krisiak eztabaida egin zuenean, gobernuak jardura ekonomikoa suspertzen saiatu ziren, likideziaren hedapena eta inflazioaren hazkundea erraztu zuten pizgarri publikoko politiken bidez, alegia, gastua handituz.

Enplegu-sorkuntzan ere, geldiera dugu, hirurogeiko hamarkadako edo *baby boom* deituriko demografiaren hedapena eta emakumeen lan-partaidetzaren gorakada ematen ari zen unean. Horren ondorioz, langabeziak gora egin zuen etengabe eta nabarmen. Egoera horren aurrean, Estatuak arazo ekonomikoetan esku hartzea behartua ikusi zuten haien burua, eta horrek areagotu egin zuen gastu publikoa, langabeziagatik prestazioei, erretiro aurreratuei eta abarri aurre egin behar izan baitzien, ongizate-estatuaren eraikuntzak herrialde gehienetan defizit publikoa handitu zuen garaian. Hurrengo grafikoan ikus daiteke nola Estatu Batuetako

langabezia %9ko errekorra iritsi zen fase atzerakorretan – 1975ean eta 1981ean bezala –, eta bere mailarik baxuena 70. hamarkadan ez zen inoiz %5tik beherakoa izan.

2. irudia: AEBko langabezia tasa (1960-1990):



Iturria: OCDE, Economic Outlook Database.

<https://data.oecd.org/unemp/unemployment-rate.htm>

Bestalde, AEBetako balantze komertziala, 77 urtetan aldekoa izan zena (1893 eta 1970 artean), negatiboa izan zen 1971n, eta gero eta negatiboagoa izaten jarraitu zuen 1978an, ia 30 mila milioi dolarreko defizit errekorra lortu zuenean. Kontu korronteko balantzak ere okerrera egin zuen hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik, eta defizitak handiagoak eta sarriagoak bihurtu ziren. Lanaren produktibitatearen hazkunde-erritmoen atzerapenean oinarritutako lehiakortasun-galera da Ipar Amerikako kanpo-defizit etengabe horien oinarritzko azalpena. Zehatzago esanda, botere ekonomikoaren kategoria jakin batzuetan herrialdearen gainbehera dela eta, AEBen nagusitasunak okerrera egin zuen. 1950ean, Ipar Amerikako ekonomiak munduko merkataritzaren eta BPGren %20 eta %40a hartzen zuen, hurrenez hurren; 1980an, berriz, proportzioa % 11koa eta % 21,5koa zen⁹.

⁹ PICHES MADRUGA, Ramón; MUSTER INFANTE, Blanca; COBARUBIA GÓMEZ, Faustino; RODRÍGUEZ ASIEN, Ernesché; COBARRUBIAS HERNÁNDEZ, Katia; JAMES HEREDIA, Jourdy; PÉREZ GARCÍA, José Ángel. (2004). *Los últimos 40 años de la economía mundial*. Centro de Investigaciones de la Economía Mundial. 52-63. orr.

2.3. 1973KO PETROLIO-ENBARGOA

Gerraostean garatutako teknika eta produktu gehienak aurreko hamarkadetatik existitzen ziren: elektrizitatea eta petrolioaren energia-forma gisa; ekoizpen-metodo tayloristak eta fordistak; abiazioa bezalako garraiobideak; automobilak, tresna elektrikoak, zuntz sintetikoak eta abar. Hala ere, gerraostean, aurretiko sare teknologiko hori hedatu egin zen. Petrolioak protagonismo berezia hartu zuen, 1973an munduko energia-kontsumo guztiaren ia erdia suposatzen baitzuen, %47a hain zuzen ere. Adibidez, 1950ean Britainia Handian 46 automobil zeuden mila biztanleko eta Frantzia 37; 1970ean, aldiz, zifrak 209 eta 252 ziren, hurrenez hurren. Automobilaren hedapena etapa honetako fenomeno bereizgarrietako bat izan zen; lanerako eta aisialdirako moduak aldatu zituen, azpiegiturak eraikitzea bultzatu zuen eta petrolioaren eratorrien kontsumoa areagotu zuen¹⁰.

1973ko krisira arte, energiaren prezioak beheranzkoak izan ziren termino errealean, eta horrek energia-kontsumoaren hazkundera eta hazkunde ekonomikoan lagundu zuen. “Petrolioaren aro” horrek XVIII. mendean ikatzaren erabilerarekin hasitako prozesua amaitzen zuen. Petrolioaren arrakasta energia erlatiboki merkea zelako gertatu zen. Petrolioaren deribatuen erabilerak egoera berria sortu zuen herrialde kontsumitzaile handietan, garatuenetan, gehienek ez baitzuten petroliorik lurpean. Historian lehen aldiz, industria-potentzia handien ekonomia kanpotik zetozen energia-iturrien mende zegoen. Ahultasun hori 1973an agertu zen, petrolioaren prezioak, 1945etik egonkor mantentzen zirenak, bat-bateko gorakada bortitza izan zuenean. Ordurarte munduko erauzketa eta banaketa, enpresa talde oso txiki baten eskutik kontzentratua zegoen, zazpi ahizpak deiturikoak, erauzteko prezioan eta baldintzetan eragiten zutenak. Oligopolio horretatik ihes egiteko, herrialde ekoizle nagusietako batzuek Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea (OPEP gaztelaniazko siglengatik) sortu zuten 1960an, produkzioa erregulatuz, prezioetan eragitea helburu zuena, eta horrek 1973ko krisia eragin zuen¹¹. OPEPek, monopolio-boterea gauzatu zuen: petrolioaren tresna politiko eta ekonomiko gisa erabili zuen Israel babestu zuten herrialdeak zigortzeko, baina, batez ere, munduari erakutsi zion botere ekonomikoa zuela, bai prezioak finkatzeko bai eskaintako kopurua zehazteko¹².

¹⁰ PALAFOX GÁMIR, Jordi, ed. (2014). “*Los tiempos cambian...*” op. cit., 215. or.

¹¹ PALAFOX GÁMIR, Jordi, ed. (2014). “*Los tiempos cambian...*” op. cit., 202-206. orr.

¹² ROLANDO MOLINA GONZÁLEZ, Jorge. (1984). “*Algunas implicaciones político económicas de la crisis petrolera mundial*”. *Revista estudios*. 79. or.

Ondorioz, prezioak hirukoiztu egin ziren oso aste gutxitan, eta are gehiago igo ziren hurrengo urteetan. Azpimarratu behar da krisi honen ezaugarri nagusia eskaintza-krisia izan zela (eskaintza-shocka), prezioek gora egin baitzuten eskaintza nabarmen murriztu zelako, hots, petrolio gordinaren esportazioak gelditu zirelako. Honek guztiak, krisi ekonomikoa areagotu zuen: ekoizpen-kostuen zuzeneko igoerak salmenta-prezioetan eragina izan zuen, inflazioaren gorakada eraginez. Ekoizpen-kostu handiagoak eta eskari txikiagoa batzeak eragina izan zuen enpresen irabazietan, eta horrek inbertsioa eta hazkunde ekonomikoa moteldu zituen. Ondorioz, langabezian eragina izan zuen, bizi-mailak okerrera eginez.

1973ko petrolio-krisiak kanpoko desoreka larriak sortu zituen. Petrolio ekoizten zuten herrialdeek galera handiak izan zituzten bitartean (petrodolarrak deiturikoak¹³), petrolio inportatzen zuten herrialdeek beren benetako truke-harremanen narriadura¹⁴ nabarmena izan zuten. Beraz, errenta herrialde kontsumitzaileetatik petrolio ekoizten zuten herrialdeetara transferitu zen. Munduko ekonomiak ia ez zuen lehen igoeraren eragina bereganatzeko denborarik izan bigarren petrolio-shocka gertatu zenean: 1979 eta 1980 artean petrolioaren prezioa %150 igo zen. Inflazioak, berriro ere, gora egin zuen, kanpoko desorekak areagotu ziren eta langabezia ia bikoiztu egin zen herrialde industrializatu askotan.

2.4. ESTANFLAZIOA FIGURA BERRI GISA

Geldialdi ekonomikoaren egoera larriagotu egin zen inflazio-tasa handiei langabezia-tasa handiak gehitu zitzaizkienean. Konbinazio horri estanflazioa esaten zaio. Fenomeno hori berria zen 70. hamarkadan; izan ere, aurreko krisietan, hala nola hogeita hamarreko hamarkadako Depresio Handian, jarduera ekonomiko txikiagoak langabezia handitzea eta prezioen maila orokorra jaistea eragin zuen, eta hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan inflazioa eta langabezia aldi berean gertatu ziren. 1958an, William Phillipsek artikulu bat argitaratu zuen, non, 1857-1961 aldirako Erresuma Baturako datuetan oinarrituta, inflazioaren eta langabeziaren arteko harreman enpiriko negatiboa ezarri zuen. Bi urte geroago, Paul Samuelsonek eta Robert Solowk antzeko emaitzak argitaratu zituzten Estatu Batuetarako, eta inflazioaren eta langabeziaren arteko erlazio negatibo horri Phillipsen

¹³ Petrodolarraren sorrera (moneta-patroi bat) 1973an gertatu zen, Estatu Batuak Saudi Arabiarekin akordio batera iritsi zirenean Erreserba Federaleko petrolio-upel bakoitza dolarretan negoziatzeko, arma amerikarren truke eta petrolio eremu sauditen babes militarren truke. Momentu hartatik aurrera, baliabide energetiko hori (petrolio) erosi nahi zuen edozein herrialdek bere moneta nazionala dolar amerikarren truke aldatu behar zuen.

¹⁴ Truke-harremanen narriadura (RRI: Relaciones Reales de Intercambio): esportatutako produktuen prezioa inportatutako produktuenarekin alderatuta jaisteko joera dagoenean.

kurba deitu zioten. Harreman horren arabera, langabezia baxua denean, inflazioa igotzen du, eta langabeziaren hazkundeak, berriz, murriztu. Beraz, langabezia murrizteko nahikoa izango litzateke zerga-politika hedakorra (gastu publikoa handitzea), nahiz eta langabezia murriztearen kontura inflazioa igoko litzatekeen. Aitzitik, inflazioa murrizteko moneta-politika murriztailea aplikatuko litzateke, eta horren truke langabezia handituko litzateke.

1968an Milton Friedmanek eta geroxeago Edmund Phelpsek erlazio hau zalantzan jarri zuten: moneta-politikak, oso epe laburrean izan ezik, ezin du langabezia murriztu inflazioa handituz. Alegia, Friedmanen arabera, eskari agregatuaren ustekabeko hazkundeak, diru-eskaintzaren hedapenaren ondoriozkoa denean, ekonomia hazten ari delaren ilusioa eragin dezake eragile ekonomikoengan, eta, beraz, enpresak langile gehiago kontratatuzera bultzatu ditzake, gehiago ekoizteko. Izan ere, inflazioak eragina izan dezake enpleguan. Baina efektu hori iragankorra da. Diru zirkulatuaren igotzearen ondorioz prezioen hazkundeak jarraitzen badu, agenteek ondorioak deskontatzen ikasten dute, eta pertzepzioak eta jokabidea egokitzen dituzte. Badakite ekonomiaren benetako hazkunderik ez dagoela. Beraz, prezioek gora egiten dute, baina produkzioa eta enplegua ez dira handitzen. Eta ebidentzia hori hirurogeita hamarreko hamarkadan berretsi zen, inflazio-tasa handiei langabezia-tasa handiak gehitu zitzaizkienean¹⁵.

2.5. KEYNESIANISMOAREN BUKAERA

Ezgonkortasun giro hori izan zen 70. hamarkada definitzen zuena: protestak, grebak, atzeraldi ekonomikoa, indarkeria... Eta oso azkar geratzen da atzean aurreko hiru hamarkadetako keynesianismoa. Keynesiar garaiko ekonomia politikoaren erakunde nagusiak lanaren eta kapitalaren presio-taldeak ziren, modu korporatiboan instituzionalizatuak, bai eta haien artean ezarritako negoziazio-sistemak ere, erakunde horietan oinarrituta, Estatuaren politika saiatzeko enplegu osoa eta soldatapekoentzako diru-sarreraren eta aberastasunaren banaketa onargarria bermatzen. Soldaten moderazioa "truke politikoari" esker lortzen zen: sindikatuen lankidetzak makroekonomikoaren sari gisa, Estatu fiskal indartsu batek soldatapekoak babesten laguntzen zuen, gizarte-politika aktibo baten bidez, merkatuaren ziurgabetasunetatik eta, aldi berean, eskari eraginkorra egonkortzen. Horretarako, Estatu

¹⁵ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). "*Historia mínima...*" op. cit., 75-78. orr.

keynestarrak sindikatu sendoak behar zituen, behar bezala antolatuak, eta, horretarako, antolaketa-laguntza ugari ematen zizkien¹⁶.

Dena korapilatu zen hirurogeita hamarreko hamarkadan krisia larriagotzen hasi zenean. Ezinezkoa zen enplegua mantentzea eta eskari agregatua diru-hedapenaren bidez administratzea kaltegarria izaten hasi zen: inflazioak gora egiten zuen, soldata errealak jaisten ziren, moneta devaluatzen zen, eta prezioen eta soldaten igoeraren zurrumbilo batean murgildu zen ekonomia. Alegia, aurreko puntuetan ikusi dugun bezala, 1960ko hamarkadaren amaieran sistemaren gainbehera hasi zen, bai nazioartean, bai etxeko ekonomietan. Alde guztietan nabari ziren kapital-metaketaen krisi larri baten zantzuak. Langabeziaren eta inflazioaren hazkundeak gora egin zuen 1970eko hamarkadaren zatirik handienean luzatu zen «estanflazio» globalaren fasean. Zerga-sarreraren jaitsierak eta gizarte-gastuen gorakadak krisi fiskalak eragin zituzten hainbat Estatutan. Keynesiar politikek funtzionatzeari utzi zioten. 1973an OPEPek ezarritako petrolio-enbargoa baino lehen, Bretton Woodsen ezarritako urrezko erreserbek babestutako kanbio-tasa finkoen sistema zapuztu egin zen. Dolar estatubatuarrek mundua ureztatzen zuten eta Estatu Batuen kontroletik ihes egin zuten Europako bankuetan gordetzean. Horrela, 1971n kanbio-tasa finkoak bertan behera geratu ziren. Orain arte hazkunde-tasa altuak eman zituen ereduak, gutxienez herrialde kapitalista aurreratuei 1945aren ondoren, funtzionatzeari utzi zion. Krisitik atera nahi bazuen, zerbait egin behar zen, eta laster, gainera. Programa neoliberala, zeinak abiapuntu gisa keynesiar politiken kritika zuen, aukera bat zirudien¹⁷.

Programa batez ere kontserbadorea da, eta enpresa-eskuinaren gai klasikoenetako asko biltzen ditu: merkatu askea, defizitaren kontrola eta gizarte-gastuaren murrizketa. Hala ere, hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetan oposizio-mugimendu errebelde bat da; ezarritako ordenaren etsaia, Estatuaren, burokraziaren, sindikatuen eta klase politikoaren aurkako protesta-mugimendu bat, gerraosteko sistemaren aurkakoa. Aurreko puntuetan aztertu dugun bezala, hirurogeita hamarreko hamarkadako krisiak ertz asko ditu, gerraosteko moneta-sistemaren amaiera, dolarraren devaluazioa, petrolio-enbargoa, Europako atzeraldia... Badirudi ohiko politikek ez dutela inolako eraginik, eta, jakina, ez da positiboa: defizit publikoa handitzen da geldialdiak irauten duen bitartean, eta inflazioa igotzen da. Egoera

¹⁶ STREECK, Wolfgang. (2016). *Comprando tiempo: La crisis pospuesta del capitalismo democrático*. Katz editores. 111-113. orr.

¹⁷ HARVEY, David. (2005). *A Brief History of neoliberalism*. Oxford University Press. 16-19. orr.

horretan, konturatzen dira neoliberalismoak irteera bat eskain dezakela. Milton Friedmanen une arrakastatsuen da: Phillipsen kurbaren erabilerari buruz egiten duen kritikak azaltzen du nola eta zergatik ager daitezkeen aldi berean langabezia eta inflazioa. Gutxienez, zerbait ulertzen hasi da. Friedmanen monetarismo zorrotzak hala ere, oso iraupen laburra izan zuen, Margaret Thatcherren lehen talde ekonomikoak bakarrik jarraitu zuen laburki. Friedmanen oinarritzko ideia zen eskari agregatua kudeatzeko politika keynesiarrek langabezia, inflazioa eta defizit publikoa sortzen zutelako, produktibitate txikiarekin batera, eta, beraz, kontrako norabidean joan behar da. Horrek esan nahi du diru-kontrol zorrotza egin behar dela prezioen egonkortasunari eta aurrekontu publiko orekatuari eusteko.

Hedadura handieneko ondorioa shockak herrialde periferikoen zorrean izan zuen eragina izan zen, besteak beste, industrializazio-eredua agortu zelako eta bankuak petrodolarrak jartzeko premia handia zuelako. Eraitza zorraren krisi globala izan zen. Hurrengo urteetan, Munduko Bankuak eta FMIk hegoaldeko herrialde gehienek zorraren birnegoziazioan parte hartzen dute. Kasu guztietan, laguntza Egiturazko Doikuntzarako Programak deiturikoak onartzearen mende zegoen. Programa horiek, funtsean, programa neoliberalak ezartzen zuten: gastu publikoa murriztea, defizita murriztea, inflazioa kontrolatzea, aktibo publikoak pribatizatzea, eta merkataritza irekitzea¹⁸.

3. HERRIALDE PERIFERIKOEN ZORPETZEA

AEBk eta Mendebaldeko Europak bezala, munduko beste eskualde batzuek ere moteldu egin zuten hazkundera, eta desoreka handiak izan zituzten. Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunean (SESB), hirurogeita hamarrekoko hamarkadako arazoak ez ziren petrolioaren prezioaren igoeran sortu, izan ere, igoera horrek hainbat ustiapen errentagarri bihurtu zituen. Bloke sobietarreko beste herrialde batzuetan, ordea, energia beharrak zirela eta, petrolio kantitate handiagoak inportatu behar izan ziren, eta SESBrekiko mendekotasuna handitu egin zen, batzuetan botere-abusuaren baldintzetan, kanpoko defizit gero eta handiagoak sortuz. Arazo nagusia plangintza-ereduari eta hazkunde estentsiboari lotutako eraginkortasunik ezak izan ziren. Produkzio-mailek behera egin zuten, eskasia larriagotu egin zen, langabezia handitu egin zen, bizi-mailen narriadura gero eta handiagoa izan zen eta mesfidantza-giroak

¹⁸ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). "*Historia mínima...*" op. cit., 103-107. orr.

erregimenaren gero eta deslegitimazio handiagoa ekarri zuen. Gainera, egoera ekonomikoaren okerragotzeak areagotu egin zuen kanpo-zorpetzea, eta ekialdeko Europako herrialdeetan 6 bilioi dolarretik 110 bilioi dolarrera igaro zen 1970 eta 1990 bitartean.

Krisiaren ondoren, Afrikako kontinentean haustura bat gertatu zen hazkundeari dagokionez, biztanleriaren hazkunde handiarekin. Beraz, per capita errentaren hazkunde-tasa 1965-73 aldian 1,2tik 1973-80 aldian 0,7ra igaro zen, eta herrialde askok tasa negatiboak izan zituzten. Petrolio hobiak zituzten Gabon edo Nigeria bezalako ekonomia batzuk bakarrik lagundu zuten petrolio gordinaren gorakadak. Afrikako herrialdeak ere nazioarteko kredituaren hedapenaz baliatu ziren. Gobernu ustelek eta diktatorialek dolar kopuru handiak bereganatu zituzten, eta dolar horiek beren aberastasun pertsonalerako, segurtasun- eta errepresio-egiturak indartzeko edo zalantzazko erabilgarritasuneko proiektu faraonikoak finantzatzeko erabili zituzten.

Ekialdeko blokean bezala, Latinoamerikan ere arazoak hazkunde-ereduaren ondorio ziren; izan ere, aipatu bezala, hazkunde-eredu horrek gero eta defizit publiko, inflazio eta ordainketa-balantzaren desoreka handiagoak sortu zituen. Horren ondorioz, Latinoamerikako herrialdeek finantzaketa-beharrak areagotu zituzten, eta kanpoko maileguak izan ziren hazkunde-tasa artifizialki altuak mantentzea eta petrolio-krisiaren eragina moteltzea ahalbidetu zutenak. Tasa horiek hobeak izan ziren elikagai eta lehengai batzuen (kotoia, kakaoa, mineralak) prezioaren goranzko joeraren ondorioz, eta, jakina, petrolio ekoizten duten herrialdeetan, hala nola Bolivian, Ekuadorren, Mexikon eta Venezuelen, produktu horren goranzko joeraren ondorioz ere.

Latinoamerikako eskualdeak, oro har, kanpoko zorpetze-maila laukoiztu zuen 1975 eta 1980 artean, eta hainbat herrialdek nabarmen gainditu zuten bolumen hori. Dinamika horrek ez zuen hurbileko aurrekaririk, eskualdeak kanpo-baliabideak eskuratzeko aukera txikia baitzuen 1975. urtera arte. Egoera larria zen eta Latinoamerikako herrialde gehienek, 1982an, muga handiak aurkitu zituzten beren kanpo-zorraren zerbitzuari erantzuteko. Horrek birnegoziaketa ugari eragin zituen, eta kasu batzuetan, herrialde hartzekodunen Altxortegien edo Banku Zentralen esku-hartzea eskatu zuten¹⁹.

¹⁹ CEPAL. (1983). *La Crisis Económica Internacional y su Repercusión en América Latina*. 47-55. orr.

Gainera, kanpo-zorra osagai pribatu eta publikoetan banatzeak adierazten du hori ez zela soilik sektore publikoaren portaerari egotz dakioken fenomeno izan, eskualde osoko kanpo-zor pribatuaren hazkundera guztizko hazkunderaren %40 izan baitzen. Urte horietako kasurik muturrekoenean, Txilen, kapital-kontuaren eta finantza-sistemaren liberalizazioak, erregulazio- eta gainbegiratze-akats sakonen testuinguruan, kanpo-finantzaketan oinarritutako kreditu-hedapena ekarri zuen; horrek gehiegizko gastu pribatua eragin zuen, eta gero, kanpo-ingurunea hondatu eta 1982an barne-ekonomian eragina izan zuenez, bere historiako finantza- eta ordainketa-krisi larriagorako bidea erraztu zuen.

Antzeko egoerak izan ziren eskualdeko hainbat herrialdetan, batez ere liberalizatuenetan, Argentinan adibidez. Latinoamerikan 70eko hamarkadan emandako kanpo-zorpetzearen prozesua amaitu egin zen, 80ko hamarkadan aurrekaririk gabeko finantza-krisia piztu baitzen, hamarkada galdua deiturikoa. Krisiaren alderdi garrantzitsu bat eskualdean zehar gertatu zen dibisa-ihesa izan zen, baina kutsu dramatiko hartu zuen Argentinan, Mexikon eta Venezuelan, herrialde horiek guztiek ez baitzuten kontrol handirik kapital-mugimenduetan. Arazoa ekonomia arautuenean (adibidez, Brasilen) zein liberalizatuenean (Hego Konokoa) agertu zen, baita finantza-arloan ere, azken horietan nagusiki, eta munduko historiako finantza-krisi nazional lazarrietako batzuk eragin zituen. Latinoamerikaren kanpo-zorra 1975ean 75 mila milioi dolarretik 315 mila milioi dolarrera laukoiztu zen 1983an, hau da, eskualdeko barne-produktu gordinaren (BPG) %50. Zorraren zerbitzua (interes ordainketa) are azkarrago hazi zen: 66 mila milioi dolarrera iritsi zen 1982an, eta 12 mila milioi dolarrera 1975ean²⁰.

Estatu Batuetako dolarrarekiko truke-tasak okerrera egin zuenez, Latinoamerikako gobernuek kopuru handiak zor zituzten beren moneta nazionaletan, eta, ondorioz, erosteko ahalmena galdu egin zen. 1981eko munduko merkataritzaren uzkurduraren ondorioz, lehengaien prezioak (Latinoamerikako esportazio handiena) asko jaitsi ziren. Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeen produkzio-egiturak heterogeneoak dira, baita haien ordezkari politiko eta sozialak ere; beraz, esan dezakegu 80ko hamarkadan gehienek zorpetze publiko eta pribatuko prozesuak zituztela, batzuk historikoki finkatuta, eta prozesu horiek are gehiago kontzentratu zirela. Diktadura zibiko militar askoren ondorengo erregimen politikoek, Argentinak, Brasilek, Uruguaiak, Paraguaiak, Boliviak, Kolonbiak, Txilek,

²⁰ OCAMPO, José Antonio; STALLINGS, Bárbara; BUSTILLO, Inés; VELLOSO, Helvia; eta FRENKEL, Roberto. (2014). *La crisis latinoamericana de la deuda desde la perspectiva histórica*. CEPAL. 28-48. orr.

Ekueadorrek, Dominikar Errepublikak, Venezuelak eta abarrek, ahuldutako Estatuekin egin zuten topo, gizarte-ordezkaritzari dagokionez, ekonomia ahulekin, pobrezia-indize handiekin eta gizarte-bazterketarekin. Era berean, maila globalean alternatiba neoliberal eta kontserbadorea eratzen hasi zen Ronald Reagan Estatu Batuetan eta Margaret Thatcher Britainia Handitik. Horiek paradigma ekonomiko berria sustatuko zuten: merkatuen liberalizazioa, gastu publikoaren murrizketa, zerga-murrizketa, ongizate-estatuaren desegitea eta merkatuaren zentralitatea baliabideen esleipen eraginkorrena bezala. Estatuak, historikoki, egiturazko ahuleziak izan ditu Latinoamerikan, eta, horren ondorioz, ez da oso gai bere papera arrakastaz jokatzeko. Bi arrazoi ditu egiturazko ahuleziak: batetik, zerga-oinarri eskasa, errentarik altuenen hartzaileekin birbanaketa-itunik historikoki ez egotearen ondorioz; bestetik, zerga-baliabideen eta estatu-aparatuaren beraren harrapaketa, botere politiko eta ekonomikoa metatzen zuten interes partikularrengatik.

Neoliberalismoa 70eko hamarkadan kokatu zen hego konoan, diktadura militarren gorakadarekin, bereziki Pinocheten diktadurarekin Txilen. Hala ere, erregioan orokortu egin zen, Mexikok eta beste nazio batzuek zorraren zerbitzua estaltzeko ezintasunarekin, Nazioarteko Diru Funtzaren jarraibideak betetzera behartuak ikusi zirenak.

Deserregulazio neoliberalak, hainbat aldaketa ekarri zituen enpleguaren merkatuan ere. Krisia baino lehen, enplegua hazteko politika bultzatzen zuten nazioarteko hainbat egoera elkartzen ziren. Alde batetik, munduko ekonomiak hazkunde altu eta egonkorren tasak zituen, eta horrek etengabe areagotzen zuen Latinoamerikak bere salgaiak esportatzen zituen nazioarteko merkatu nagusietako barne-eskaria. Bestalde, Estatuak, eredu keynestarraren berezko eragile enplegatzaile gisa, enplegu publikoa hazteko politika sustatzen zuen, eta, horri esker, zenbait herrialdetan enplegu osoko maila lortu zen. Neoliberalak berriz, beren buruari proposatu zioten Estatuaren edo sindikatuen edozein interferentzia langileria birdiziplinatzeko helburuetan sartzea saihestea, nazioz haraindiko metaketa-eredu berriaren arabera. Horretarako, langabezia, soldata baxuak, gizarte-prestazioen murrizketak (kasu askotan desagertzeraino) eta langile-mugimenduaren konkisten atzerakada baino ez ziren erabiltzen beren helburuak lortzeko.

60ko eta 70eko hamarkadetan, Latinoamerikako BPGaren urteko batez besteko hazkunde-tasa %5,66 eta %5,94 izan zen, hurrenez hurren, eta emaitza hori ez du lortu neoliberalismoak aldi bakar batean ere. 80ko hamarkadan Latinoamerikako eta Karibeko

ekonomiak izandako jardunaren balantze orokorrean, CEPALek adierazi zuen hazkunde ekonomikoa %1,0 baino ez zela izan. Barne-aurrezkiaren beherakadak eta barne-iturri metatuek Latinoamerikako herrialdeetako barne-inbertsioaren finantzaketan utzi duten arrakala kanpoko baliabideek estali dute, atzerriko mailegu eta inbertsio gisa, eta horiek Latinoamerikako barne-inbertsio gordinaren finantzaketan duten partaidetza handitu dute. Fenomeno hori, eskualdea munduko ekonomiaren finantza-zirkuituetan sartzeaz gain neoliberalismoaren estrategei gehien interesatzen zaien moduan, ekonomia atzerritartzeko kanaletako bat da, eta nazioarteko ekonomiaren krisi-gertakarien aurrean duen ahultasuna areagotzen du²¹.

Gaur egun oraindik mantentzen den herrialde periferikoen zorpetze honek, esan bezala hainbat ondorio izan zituen. Txilen egin zen esperimenduak atek ireki zizkion neoliberalismoa mundu osoan zehar garatzeari. Are gehiago, herrialde periferikoen zorpetzeak luzaroan jarraitu zuen, horren truke, bankuen jabetza normalizatzeko eta privatizazioak bizkortzeko konpromisoa eskatu zitzaielarik, neoliberalismoaren hedapenari bide emanez²². Ikus dezagun arretaz zeintzuk diren teoria ekonomiko eta politiko honen oinarriak eta zeintzuk izan ziren bere lehen aplikazioak.

4. MUNDU BERRI BAT: NEOLIBERALISMOAREN HEDAPENA

4.1. NEOLIBERALISMOA IRTENBIDE BAKAR BEZALA: IDEOLOGIA ETA PROGRAMA POLITIKOA

Neoliberalismoaren eta aurreko hamarkadetako ideien arteko aldea, funtsean, merkatua berez sortzen ez den eta berez eusten ez den ustearen ondorio da; aitzitik, Estatuak sortu, sendotu eta defendatu behar du. Hau da, Estatuari aurreko mendeetako liberalek baino zeregin aktiboagoa dagokio. Helburua ez da Estatua desagerraraztea, ezta ahalik eta gutxien adieraztea ere, eraldatzea baizik. Jasotzen duen beste ideia bat pribatutasunak publikoaren gainean duen nagusitasun tekniko, moral eta logikoaren ideia da. Pribatuarekin alderatuta, publikoa beti

²¹ PICHES MADRUGA, Ramón; MUSTER INFANTE, Blanca; COBARUBIA GÓMEZ, Faustino; RODRÍGUEZ ASIEN, Ernesché; COBARRUBIAS HERNÁNDEZ, Katia; JAMES HEREDIA, Jourdy; PÉREZ GARCÍA, José Ángel. (2004). “*Los últimos 40 años...*” op. cit., 105-114. orr.

²² LELART, Michel. (1996). *El sistema monetario internacional*. Acento editorial. 48-50. orr.

izango da eraginkortasun gutxiagokoa, publikoa ia definizioz ustelkeriarako joera duela defendatzen da.

Lerro komunak erraz ezagutzen dira, aktibo publikoen pribatizazioa (enpresak, lurrak, zerbitzuak); nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa; finantza-merkatuaren eta kapitalen mugimendu globalaren liberalizazioa; merkatu-mekanismoak edo enpresa-irizpideak sartzea zerbitzu publikoak eraginkorragoak izan daitezen; eta zergak, gastu publikoa, defizita eta inflazioa murrizteko bultzada sistematikoa.

Laburbilduz, ideia neoliberalak dio Estatuak merkatuaren existentziarako eta funtzionamendu egokirako baldintzak sortu behar dituela, hau da, ez dela murriztu edo ezabatu behar, beste orientazio bat eman baizik. Bigarrenik, liberal klasikoek ez bezala, askatasun ekonomikoari ematen diote lehentasuna askatasun politikoaren gainetik. Askatasunerako bidea merkatuan hasten da²³.

4.2. TXILE: LEHEN ENTSEGU OROKORRA

Merezi du gogoratzea Estatu neoliberal baten lehen eraketa-esperimentua Txilen gertatu zela, 1973ko irailaren 11n Pinocheten kolpearen ondoren. Demokratikoki aukeratutako Salvador Allenderen gobernuaren aurkako kolpea, bere presidentearen sozialismorako norabidearen mehatxupear sentitzen ziren etxeko elite ekonomikoek bultzatu zuten. Estatu Batuetako konpainien, CIAren eta Henry Kissinger AEBetako Estatu idazkariaren babesak izan zuten. Ezkerreko gizarte-mugimendu eta erakunde politiko guztiak bortizki zapaldu zituen, eta herrialdean zeuden herri-antolaketa mota guztiak desegin zituen (auzo pobreetako osasun-zentro komunitarioak, esaterako). Lan-merkatua, era berean, arauzko edo erakundeetako murrizketetatik «askatu» zen (sindikatuaren boterea, adibidez).

Mundu osoa atzeraldi ekonomikoan zegoenez, ikuspegi berri bat behar zen. Txileko ekonomia berreraikitzen laguntzeko, «Chicago boys» izenez ezagututako ekonomialari talde bat deitu zen, garai hartan Chicagoko Unibertsitatean irakasten zutenak Milton Friedmanen teoria neoliberalari atxikirik. 1950eko hamarkadatik, Estatu Batuek Chicagoko Unibertsitatean ekonomialari txiletar batzuen prestakuntza finantzatu zuten, Latinoamerikako joera ezkertiarrei aurre egiteko Gerra Hotzeko programa baten zati gisa. Chicagon hezitako

²³ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). “*Historia mínima...*” op. cit., 25-30. orr.

ekonomialari hauek Txileko Santiagoko Unibertsitate Katoliko pribatua menperatzera iritsi ziren. 1970eko hamarkadaren hasieran, finantza-eliteek «Astelehenetako kluba» izeneko talde baten bidez antolatu zuten Allenderen aurkako jarrera, eta ekonomialari horiekin harreman produktiboa garatu zuten, beren lanak ikerketa-institutuen bidez finantzatu. Gustavo Leigh jenerala, Pinocheten arerioa boterera aupatzeko eta ideia keynesiarren defendatzailea zena, 1975ean zokoratu ondoren, Pinochetek ekonomialari hauek gobernuan jarri zituen, non bere lehen lana kredituak Nazioarteko Diru Funtzarekin negoziatzea izan zen. NDFrekin egindako lanaren emaitza ekonomia berregituratzea izan zen, bere teoriekin bat etorritz.

Gainera, eta ez bakarrik Txileko erregimen militarren kasuan, programa ekonomiko liberala zientzia izaerako jakintza absolutu baten emaitza zelako ideia nagusitu zen. Kritikatzera ausartu zirenak deskalifikatu egin zituzten ezjakin, estatista, modernizazioa errefusatzeko zutenak edo, besterik gabe, lege ekonomikoak ezagutzen ez zituztenak bezala kalifikatu²⁴.

Nazionalizazioak berreskuratu eta aktibo publikoak pribatizatu zituzten, baliabide naturalak (arrantza-industria eta zurgintza, besteak beste) ustiapen pribatu eta desarautura ireki zituzten (kasu askotan indigenen aldarrikapenei inolako begirunerik eman gabe), Gizarte Segurantzak pribatizatu zuten eta atzerriko inbertsio zuzena eta merkataritza-askatasun handiagoa erraztu zituzten. Diktadurak eszenatoki ezin hobea eskaintzen zuen neurri erradikalak hartzeko: sindikatuak eta alderdi politikoak debekatuta, beste egoera batzuetan edozein gobernu akabatuko zuten neurriak praktikan jar zitezkeen. Atzerriko konpainiek Txileko operazioen onurak aberriratzeko zuten eskubidea bermatua izan zen. Esportazioan oinarritutako hazkundera bultzatu zen, inportazioak ordeztaren aldean. Estatuari erreserbatutako sektore bakarra kobreak funtsezko baliabidea izan zen (petrolioaren iraketa bezala). Horrek berebiziko garrantzia izan zuen Estatuaren aurrekontu-bideragarritasunerako, kobreak diru-sarrerak diru-kutxetara bakarrik bideratzen baitziren. Txileko ekonomiaren berehalako suspertzeak, hazkunde-tasari, kapital-metaketari eta atzerriko inbertsioen gaineko errendimendu-tasa altuari dagokienez, ez zuen luzaroan iraun.

Dena pitzatu zen Latinoamerika 1982an astindu zuen zorraren krisian. Horren ondorioz, ondorengo urteetan askoz ere aplikazio pragmatikoagoa gertatu zen, politika neoliberalen

²⁴ BRIEGER, Pedro. (2002). *De la década perdida a la década del mito neoliberal*. CLACSO, Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales. 343. or.

ideologiak gutxiago bideratua. Txileko enpresak gogor zorpetu ziren hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeko diru merkearekin; pribatizazioek espekulazio-espirala eragin zuten, eta merkataritza-liberalizazioak defizita eragin zuen ordainketa-balantzan. Herrialde periferiko gehienetan bezala, Txilek Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren maileguetara jo behar izan zuen, eta, horren truke, bankuen jabetza normalizatzeko eta geratzen ziren enpresa publikoen pribatizazioa bizkortzeko konpromisoa eskatu zitzaien²⁵. Prozesu horrek guztiak, pragmatismoa barne, balio izan zuen demostrazio baliagarri bat emateko neoliberalismorantz egin beharreko biraketari, bai Britainia Handian (Thatcherren gobernupean) bai Estatu Batuetan (Reaganenaren pean) 1980ko hamarkadan. Txilek garrantzi berezia du neoliberalismoaren historiarako, bi arrazoi nagusirengatik: Lehen kasua izan zelako eta diktadura bat zelako, boterera kolpe bereziki odoltsu baten bidez iritsia. Horrela, eta ez lehen aldiz, periferian egindako esperimentu basati bat eredu bihurtzen zen erdigunean politikak formulatzeko²⁶.

4.3. THATCHERISMOA: NEOLIBERALISMOAREN GLOBALIZAZIOA

Margaret Thatcher 1979ko maiatzean hartu zuen Erresuma Batuko gobernuaren ardura, Lehen Ministro gisa. Ekoizpen-geldialdia, inflazio handia, protestak, grebak eta sindikatuen azalduaren hamarkada luze baten ondoren iritsi zen.

Garrantzitsua da argitzea Ronald Reaganek eta Margaret Thatcherrek, biak neoliberalak eta elkarrekiko sinpatia ukaezina dutenak, gobernu-programa desberdinak dituztela. Ongizate Estatua deseginez gastu publikoa pribatizatzea eta murriztea izan ziren bere errezeta nagusiak. Bere agintaldian esku pribatuetara pasatu ziren trenbidearen negozioa, aeronautikarena eta telekomunikazioena. Enpresariak gurtu egiten zuten. Thatcherren programa ekonomikoak neoliberalismoaren irudi estandarra osatzen duten elementu guztiak biltzen zituen: zergak murriztea, gastu publikoa moztea, erregulazioak ezabatzea eta enpresa publikoak pribatizatzea²⁷. Laburtuz, Estatu gutxiago eta merkatu gehiago. Ronald Reaganek ez bezala, Thatcherren kezka nagusia inflazioaren kontrola zen. Friedmanek zioen inflazioa ez zela sindikatuen errua, ezta petrolioaren prezioena ere, moneta-eskaintzarena baizik, besterik ez. Beraz, posible zela inflazioa kontrolatzea moneta-masa kontrolatze hutsarekin, ekonomiak automatikoki berreskuratuko zuen bere jarduera-erritmoa eta langabezia laster itzuliko zen

²⁵ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). “*Historia mínima...*” op. cit., 107-110. orr.

²⁶ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). “*Historia mínima...*” op. cit., 13-16. orr.

²⁷ WARNER, Mildred E. (2017). “De la competencia a la cooperación: reformas de la administración pública para ciudades sostenibles”. *Revista del CLAD Reforma y democracia*. 7. or.

bere berezko tasara edo tasa naturala deiturikora. Thatcherren gobernuak beraz, murrizketa monetarioa proposatu zuen. Ondorioa geldialdi ekonomikoak hamar urte gehiago irautea izan zen.

Agintaldiko lehen hiru urteak amesgaiztoa izan ziren Thatcher gobernuarentzat. Hasteko, bere politika ekonomikoak porrot egin zuen oinordetzan hartutako krisia areagotu eta herrialdea 30eko hamarkadako Depresio Handiaz geroztiko atzeraldirik larrienean murgiltzean, BPGren %2ko atzerakadarekin 1980an eta %1,2koarekin hurrengo urtean. Era berean, langabeziaren bilakaera izugarria izan zen, %11raino, 1982ko udazkenean lortu zen gerraosteko aurrekaririk gabeko tasa. Gobernuak aldatu zenetik bi urte besterik igaro ez zirela, Erresuma Batuko langabeen biztanleria 1,5 milioitik 3 milioira hazi zen, hau da, bikoiztu egin zen (3. irudia). Langabezia 1929ko krisiaz geroztik ikusi gabeko mailara igo zen eta pobreak ere gora egin zuen Thatcherrekin. Giniren koefizientea, desberdintasuna 0 eta 1 arteko balioekin neurtzen duena, 0,253tik 0,339ra igaro zen bere gobernuan.

Sektore publikotik egindako kontraten beherakadak, interes-tasa estratosferikoekin eta BEZaren igoerarekin batera, porrot egitera kondenatu zituen milaka enpresa txiki eta ertain, banku-kreditua eskatzearen kostuak jasan ezin zituztenak. Gales eta Yorkshire bezalako eskualdeetan benetako basamortu postindustrialak sortzen ari ziren. Are odoltsuagoa izan zen inflazioarena, politika bere izenean egiten zuen arren, denbora dezente behar izan zuela emaitzak emateko, aldeztatik ariketa kaltegarri batzuk idatzi gabe: prezioek gora egiten jarraitu zuten 1980ra arte, orduan inflazioak %18ko batez besteko indizea izan baitzuen, urte erdian % 20ko gailurrarekin (4. irudia).

1981ean, 364 ekonomialariz osatutako talde batek gutun ireki bat argitaratu zuen Thatcherren politika kritikatzeko. Azken honen programak atzeraldia areagotuko zuela zioten, baina kritikoen argudioek ez zuten eragin handirik izan gobernuaren politikan. Are gehiago, Thatcher andreak erreforma erradikalekin erantzun zuen, merkatu librearen defendatzaile ziren Friedrich Hayek eta Milton Friedman ekonomisten ideietan oinarrituta. 1981ean, zerga-sarrerak handitu eta gastu publikoa atzeraldi betean murrizten zuten aurrekontuak egin ondoren, inflazioa %11,9ra apaldu zen. Tasa berriro jaitzi zen, %8,6ra, 1982an, BPGak hazkundearen bidea berreskuratu zuenean (%2,2). Hala eta guztiz ere, balio horiek oraindik oso kaltegarriak ziren herritarren erosteko gaitasunerako.

1983ko berrautaketan, zeina beste arrazoi batzuen artean Maldivetako arrakastagatik eman baitzen²⁸, testuinguru ekonomikoa eta finantzarioa desberdinak ziren: BPGa urteko %3tik gora hazi zen, eta inflazioa %5etik behera murriztu zen – nahiz eta hiru milioi langabetu luzeen zorigaiztoko kopuruak ez zuen murrizteko arrastorik izan-, *Burdinezko Damak* azeleragailua zapaldu zuen "herri-akzioak" jaulkitzen zituzten pribatizazioen kanpainan.

Aktibo publikoen pribatizazioarekin batera, lehentasunezko beste helburuetako bat sindikatuen boterea murriztea izan zen. Estatuko ikatz meategiak eta siderurgikoak itxi zituen, etekinik ematen ez zutelako, eta greba bat eragin zuen, agindu zuen errepresio basatiagatik ospetsua izan zena. "Ez nago hemen txaloak biltzeko", zen bere esaldi gogokoenetako bat. Alegia, Erresuma Batuko 174 ikatz meategietatik lau itxi ziren, eta 187.000 langileetatik 20.000 kaleratu ziren. Erantzun gisa, sindikatuak greba deklaratu zuen 1984ko martxoan. Baina, Thatcherrek azken ondorioetaraino iristea erabaki zuen, ezertan amore eman gabe. Ez zuen demandarik onartu. Are gehiago, meatzariak barne etsai gisa aipatzen zituen. 1984-1985eko meatze-borrokaren ondorioak izugarriak izan ziren, Erresuma Batuko ekonomiak 1.500 milioi liberako galerak izan baitzituen. Desindustrializazioa gelditzea ezinezko bilakatu zen. Politika berriak ezin zituen errentagarriagoak bihurtu ez meategiak ez lantegi ingelesak. Hau da, ekonomiaren berrantolaketa behar zen. Alternatiba finantza-merkatua bultzatzea izan zen. Londresko finantza-merkatua gobernatzeko zuten arau eta murriztapen gehienak bat-batean ezabatu ziren 1986ko urriaren 27an, Big Bang izenekoan. Berehala munduko finantza-gune nagusietako bat bihurtu zen, ikatz-meatzarien greba atzean utziz, azkar.

Laburtuz, gastu publikoan murrizketak egin ziren, hezkuntzan, osasunean eta artean aurrekontua mugatuz. Enfasia inflazioaren kontrolean jartzen zuten neurri ekonomikoak adostu ziren, sindikatuen eta tokiko gobernuen boterea murriztu zuten legeak onartu ziren eta pribatizazioen eta kapitalismo popularra martxan jartzeko eta hedatzeko programa bat hasi zen. Thatcherismoak herrialdearen pentsamoldea aldatzeko inposatu nahi ziren ideia moralak zituen lagun. Thatcherrek boterea utzi zuenean, Erresuma Batuko oinarrizko egituren eraldaketa hain izan zen erradikala, ezen ezinezkoa baitzirudien Thatcher iritsi aurreko egoera batera itzultzea. Gauzatu zuen sistema ekonomikoa indibidualismo lehiakorraren

²⁸ 1982an Argentinak Maldiva uharteak inbaditu zituen. Thatcherrek, aurkako aholkuak eman bazioten ere, tropak bidali zituen hego atlantikora eta gerra polemiko bat hasi zuen. Ehunka hil ziren, baina Erresuma Batuak uharteak berreskuratu zituen. Herrialdeak indar armatuen eta hauek batailara bidaltzea agindu zuen emakumearen arrakasta ospatu zuen. Hurrengo hauteskundeetan garaipen ikaragarria lortu zuen.

printzipioetan eta askatasun ekonomikoa askatasun politikoaren oinarria den ustean oinarritzen da²⁹.

Bi esaldi oso ezagunek ondo laburbiltzen dute Thatcherren ideia, bere programa, eta zein aldarterekin nagusitu zen: ez dago alternatibarik, gizartea ez da existitzen. Honen arabera, jende gehiegik uste du arazo bat izanez gero gobernuari dagokiola arazoa konpontzea; jendeak gizarteari egozten dizkio bere arazoak; baina gizartea ez da existitzen (there is no such thing as society), materialki gizabanakoak baino ez daude. Bigarren esaldiak (there is no alternative) zientziaren autoritate eztabaidaekin inposatu eta justifikatzen diren erabakiei egiten die erreferentzia. Alternatiba kaosa da, hau da, pentsaezina da, onartezina³⁰.

4.4. RONALD REAGAN: HAUSTURA SOZIALEAN OINARRITUTAKO HAZKUNDEA

Urte txarrak ziren Estatu Batuentzat, hitz egin dugu horretaz: Vietnamgo porrota, gobernu iraultzaileen ezarpena Angolan, Mozambiken, Nikaraguan, Iranen, dollarraren debaluazioa, Pentagonoko Paperen hedapena... Alderdi errepublikanoak, gainera, Richard Nixonen lasta zeukan, eta zeharo sakabanatuta zegoen. Reaganek berriz, Estatu Batuetako gizartearen burua aldatu zuen, bere optimismoa kutsatu zuen. Gastu militarra handitzeko beharrak eta Estatu Batuek mundu osoan hartutako konpromisoek, nagusitasun estrategikoa baieztatzeke ezinbestekoak, aurrez aurre talka egiten zuten gastua, defizita eta zorpetzea murrizteko beharrek, eta aurrekontu orekatuak proposatzearekin, proiektu neoliberalak nahi zuen bezala. Hala ere, Reaganek ez zituen kontraesanak ikusten, are gehiago, inork ez ikustea ere lortzen zuen.

Reagan ez zen kezkatzen defizit publikoaz, Margaret Thatcher bezala. Batez ere zergak jaisteko ahaleginetan zebilen. Bere oinarritzko ustea zen gobernu ez zela eraginkorra definizioz, eta horrek ez zuela erremediorik. Reaganek tokiko gobernuari ahalmenak transferitzea proposatu zuen, beti hurbilago baitaude, eta arreta handiagoz erantzuten diete beharrei.


²⁹ THORNLEY, Andy. (2003). "El caso británico: del thatcherismo a la Tercera Vía". *Urban*. 94-98. orr.

³⁰ ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). "*Historia mínima...*" op. cit., 115-122. orr.

Thatcherren gobernuak bere une epikoa izan zuen meatzarien grebarekin. Reaganek ere antzerako egoera bizi zuen, aire-kontrolatzaileena. Hegazkintza Desarautzeko 1978ko Legeak lehia areagotu zuen eta hegaldiak nabarmen ugartu ziren. Arazoa da hori gertatzen zela aireportuetako azpiegituretarako baliabideak murriztearekin batera. Aire-kontrolatzaileek, lanez gainezka, greba deitu zuten 1981eko udan. Eta berriz ere, Thatcherrek ez bezala, Reaganek ez zuen interes berezirik sindikatuen gaian. Izan ere, gatazkari hasiera batean behintzat adiskidetzeko asmoz ekin zion, irtenbide bat negoziatzeko asmoz. Abuztuan tornak aldatu zituzten. Sindikatuak grebara deitu zuen, gobernuak legez kanpokotzat jo zuen, eta berehala, egun bakar batean, 11.000 kontrolatzaile kaleratu zituen. Gainera, gobernuak debekatu egin zuen kaleratuetako edozein kontratatzea. Mendekuzko neurri bat zen, guztiz alferrikakoa, mezu politiko gisa izan ezik. Kolpe erabakigarria izan zen sindikalismo estatubatuarrarentzat.

Lehen esan dugun bezala, Reaganen benetako kezka zergak jaistea zen. Horregatik, garatu zuen programa ekonomikoa "eskaintzan bideratutako ekonomia" (supply-side economics) izan zen. Kontua zen keynesianismoak huts egin zuela diruaren, gastuaren eta enplegu publikoaren bidez eskari agregatuan eragiten saiatzean, eta, aldiz, beharrezkoa zela eskaintzan zentratzea, hau da, ekonomiaren ekoizpen-ahalmenean. Eta horrek esan nahi zuen baldintza mesedegarriak sortu behar zirela enpresariak gehiago inbertitzeko, gehiago ekoizteko, alegia, eskaintza handitzeko. Hala funtsionatzen zuen ideia honek: enpresei zergak eta pertsonen diru-sarreraren gaineko zerga murrizten badira eta, horrela, errenta handienak dituztenen irabaziak handitzen badira, epe luzera gizarte osoak izango du horren onura. Laburbilduz, aberatsek irabazi handiagoak badituzte, gehiago inbertitu ahal izango dute, eta horrela enplegua sortuko dute, ekoizpena handituko dute, eta azkenean denak aterako dira garaile. Estatuaren diru-sarrera handitu egingo da zergak jaistean, ekoizpena handitu egingo delako. Laffer-en kurba deritzo honi. Hala ere, ikusko dugun bezala, egoera guztiz bestelakoa izan zen. Hurrengo grafikoetan ikus daiteke orduko potentzia nagusienetan inflazio-tasak eta langabezia-tasak izandako gora-beherak, AEBn eta Erresuma Batuan jarriko dugularik arreta nagusia:


3. irudia: Inflazio-tasa (1970-2010):



Iturria: OCDE, Economic Outlook Database

<https://data.oecd.org/price/inflation-cpi.htm#indicator-chart>

4. irudia: Langabezia-tasa (1970-2010):



Iturria: OCDE, Economic Outlook Database


<https://data.oecd.org/unemp/unemployment-rate.htm>

Tatcherren gobernuan emandako inflazio- eta langabezia-tasataz hitz egin dugu, baina AEBetan ere egoera larria izan zen. Inflazioa 1979tik aurrera kontrolatzera heldu ziren, baina hiritarrentzat kaltegarria izango litzatekeen era batean. Paul Volckerrek, AEBetako Erreserba Federaleko Bankuko presidente izendatu berriak, interes tasak igo zituen, langabezia Depresio Handitik inoiz ikusi gabeko mailara iristea eraginez. Langabezia etengabe altu mantendu zen. Tasa ofiziala %7,5ekoa zen Reaganen lehendakaritzan, eta lehen aldiaren amaieran ere berdina izaten jarraitu zuen, neurri batean interes-tasa altuen politikak eragindako atzeraldiagatik. Hala ere, Reaganomicseko zortzi urteren ondoren, jaitsi egin zen %5,4ra iritsi arte, baina aurreko negozio-zikloetako antzeko faseetan baino are altuagoa zen. Suposatzen zen aberatsenen irabaziek tantakako eragina izango zutela, eta horrek langileen soldatak handituko zituela. Hori ere ez zen horrela gertatu: gizonen soldatak gutxitu edo mantendu egin ziren Reaganen lehendakaritzan. Reaganen lehendakaritzak desberdintasuna nabarmen handitu zen aro bati hasiera eman zion, kalifikazio baxuko langileen soldatek beherakada luze bati ekin zioten eta BPGan lanaren partaidetzak behera egiten jarraitu zuen. Reaganen politikak klase ertainaren narriadura suposatu zuen³¹.

Arrazoia argia da: zergen murrizketa orokor batek mozkin izugarriak sortzen ditu diru-sarreraren piramidearen goiko aldean daudenez, eta horiek aurreztu eta inbertitu egiten dute, hurrengo aldietan diru-sarrerak nabarmen haziz. Aldiz, ohiko langileak gutxi aurrezten du, zerbait aurrezten badu, eta, beraz, eskuragarri dagoen kopurua handitzeak diru-sarreraren igoera txikia dakar. Bestela esanda, aberatsek inbertitu egiten dute pobreek beren etekinak kontsumitzen dituzten bitartean, eta horrela handitu egiten da daukatenen eta ez dutenen arteko zatiketa. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, giniren indizeak Reaganen lehendakaritzan desberdintasunaren gorakada laburbiltzen du. Indizea, nazioarteko konparazio batean jada altua zena, azkar igotzen hasi zen 1981eko zerga-erreforma egin eta gutxira:

³¹ KOMLOS, John. (2019). "Reaganomics: una línea divisoria". *Revista tiempo y economía*. 47-76. orr.

5. irudia: Giniren indizea AEBn (1976-1992):



Iturria: Federal Reserve Bank of St. Louis, "Income Gini Ratio for All Households," series GINIALLRH.

https://www.researchgate.net/figure/The-Gini-Index-of-Pre-Tax-Income-Source-Federal-Reserve-Bank-of-St-Louis-Income-Gini_fig9_332067632

Aurreko lerroetan ikusi dugun bezala, Margaret Thatcher eta Ronald Reagan boterean zeudela, nazioarteko ekonomia prest zegoen hazkunde-fase berri baterako. Fase horren ardatza AEBen susperraldia izango zen, susperraldi moderatu eta kontrolatu bat bilatuko zela adieraziz. Hala ere, gertatu zena guztiz desberdina izan zen. Reaganek liberalismo ekonomikoaren printzipio guztiekin hautsi zuen, AEBetako defizit publikoa zientzia ekonomikoak inoiz imajinatu gabeko mugetara igotzean, laurogeiko hamarkadan eta baita laurogeita hamarreko hamarkadan proiektatutakoa³². Hala Estatu Batuetan nola Erresuma Batuan, deflazioa gobernuen eta enpresarien eraso erabakiorrekin batera gertatu zen, Reaganek aire-trafikoaren kontrolatzaileen aurka eta Margaret Thatcherrek meatzarien sindikatu nazionalaren aurka lortutako garaipenarekin. Ondorengo urteetan, inflazio-tasak baxuak izan ziren mundu kapitalista osoan, eta langabezia, berriz, etengabe hazi zen, sindikalizazioak behera egin zuen bitartean ia leku guztietan, eta grebak hain gutxi egin ziren, ezen herrialde batzuetan estatistiketan erregistratzeari utzi baitzioten. Gutxinaka frogatzen joan zen zenbat eta neoliberalismoa gehiago aplikatu, orduan eta gehiago sustatzen eta erradikalizatzen zela ongizate-estatua sakrifikatzen duen egiturazko desberdintasuna.

³² DOS SANTOS, Theotonio. (1999). *Neoliberalismo: doctrina y política*. 521. or.

5. IDEOLOGIA NEOLIBERALAREN ETA DEMOKRAZIAREN ARTEKO KONTRAESAN KONPONEZINAK

Ideologia neoliberalaren eta haren izaera antidemokratikoaren artean harreman zuzena eta proportzionala dago; hau da, neoliberalismoaren aplikazioa sakonago bihurtzen denean, gizarte-ongizatea husten eta sakrifikatzen duen des-demokrazia baten inposaketa sustatzen eta erradikalizatzen da, ongizate-estatua bere adierazpen txikienera murriztuz. Ideologia neoliberalak sinetsarazten du aberastasuna eta botere politikoa esku gutxitan pilatzea dela herritarren gehiengo zabalari ongizatearen transferentzia bermatuko dion bide bakarra. Aberastasuna goitik behera iragazteko sine qua non baldintza izango da jabetza pribatua stricto sensu moduan defendatzea, kapital-inbertsioak arautu eta sustatuko dituen enpresa-ikuspegiko diziplina eta lehia logika estatalaren bidez. Lehenik eta behin, aberastasuna sortu behar da, eta ondoren, aberastasuna banatu egingo da, boterea duen klasearen onespenez.

Friedrich Hayek, neoliberalismoaren aitak, esandakoa berresten du: Merkatu-askatasuna premia bat da; demokrazia, komenientzia bat. Lehenengoa ezinbestekoa da, bigarrena onargarria da, lehenengoari kalterik egiten ez dion neurrian. Gobernu-erregimen demokratikoa goraiatzeko da beraz, merkatu librearen funtzionamenduan eragiten ez duen heinean³³.

Esan daiteke bai Hayek eta bai Friedman bat datozela eredu ekonomikoa bera helburu bat dela eta gizakia ekoizpen baliabide bat delaren ideian. Batez ere, neoliberalak bat egin zuten demokrazia indartsuaren aurka egiteko —mugimendu sozialak, zuzeneko parte-hartze politikoa edo Estatuari egindako eskaera demokratikoak—, totalitarismo, faxismo edo mafien gobernu gisa identifikatzen baitzuten. Helburu horietarako, Hayekek zalantzan jartzen zuen herri-subiranotasuna, esanez inkoherentea zela eta subiranotasun politikoaren kontzeptua bera desegokia zela gizarte libreentzat.

Hala ere, demokraziaren aurkako eraso neoliberalak batzuetan ez da hain ausarta. Demokraziaren esanahiak aldatzea barne hartzen du, arauak ezartzeko «metodo» batera murriztuz, gobernu-modu bat baino gehiago, haren irismena murriztuz eta gobernutik bereiziz. Demokrazia itotzea funtsezkoa da. Energia demokratikoei, neoliberalen ustetan, berezko

³³ MERCHAND ROJAS, Marco Antonio. (2020). “Desigualdad e Ideología neoliberal antidemocrática”. *Revista Kavilando*. 7-12. orr.

ordena eta garapena mehatxatzen dute, eta muturreko forman despotismoa edo totalitarismoa eragiten du³⁴.

Langileek beti egingo dute merkatuen aurka borroka, aukeren eta sarien banaketan bidegabeak diren heinean. Klase hori engaina daiteke, ordea, «ez dago alternatibarik» esaldia errealitatearen printzipio gisa onartzeko. Horrela gertatu zen, lan honetan ikusi dugun bezala, Margaret Thatcher (1979-1990) eta Ronald Reagan (1981-1989) Estatu Batuetako presidente ohiarekin. Mundu osoko mugimendu kontserbadorea biziberritu zuten pertsonaiak izan dira, eta erreforma-agenda bera sustatu zuten: zerga txikiak, gastu sozialaren murrizketak, merkatuari emandako botere osoa, ekimen pribaturako askatasun handiena eta sektore publikoaren etengabeko murrizketak. Estatua zen bientzat, arazoa, ez konponbidea.

Beraz, ideologia neoliberalaren eta demokraziaren arteko bateraezintasuna berresten duten lau kontraesan agertzen dira batez ere. Alde batetik, demokrazia botere soziala antolatzeko eredu gorakor batetik abiatuta eraikitzen da, hau da, behetik gora. Merkatua, aldiz, goitik beherako logika baten ondorio da, eta talde boteretsuak (oligopolioak) dira gailurretik antolatzen eta legitimatzen dutenak dagoen ordena. Bigarrenik, merkatuak gaituenen lehia eta biziraupena sustatzen du, eta ez du inolako eskubiderik aitortzen eskainitako ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko. Gainera, demokrazia bultzatzen duena berdintasuneko eta justizia sozialeko gutxieneko plataforma bat da. Merkatuak, aldiz, irabazia eta aberastasunerako grina ditu helburu. Azkenik, demokraziak berdintasunezko dinamika bat bilatzen du, osasuna, hezkuntza eta gizarte-segurantza bermatzeko eskubide sozial eta ekonomikoen konkista progresiboa ekarriko duena. Aldiz, merkatuak ondasun publikoak pribatizatzea eta merkantilizatzea bilatzen du, soilik ondasun horiek ordain ditzaketenek eskura ditzaketanak.

Demokrazia beraz, itoa eta degradatua izan da, bai. Hala ere, eragina helburu neoliberalen kontrakoa izan da. Ekonomiatik isolatuta egon beharrean, eta, beraz, ekonomia zuzentzeko gai izan beharrean, kapital handiak gero eta instrumentalizatuago dauka Estatua —industria handi guztiek, nekazaritza eta petroliotik hasi eta farmazia eta finantzearaino, eskua sartu zuten legegintza-gurpiletan—. Demokraziaren aurkako botere eta energia politikoak handitasunez eta intentsitatez hazten ziren heinean, bizitza politikorako modu

³⁴ BROWN, Wendy. (2019). *En las ruinas del neoliberalismo*. Traficantes de sueños. 94-99. orr.

beldurgarri bat sortu zuten, erantzukizun demokratikorik edo konstituzionalik gabeko interes ekonomiko boteretsuen mende, non *demoek* ez lukete gobernatuko³⁵.

6. ONDORIOAK

Finantzaketa eskasa izan arren, neoliberalismoa itzalean mantendu izan zen hasieran. Gerraosteko adostasuna ia unibertsala zen: John Maynard Keynesen errezeta ekonomikoak planetako leku askotan aplikatzen ziren; enplegu betea eta pobrezia murrizketa helburu komunak ziren Estatu Batuentzat eta ia mendebaldeko Europa osoarentzat; kapitalari ezarritako zergak handiak ziren, eta gobernuak ez ziren lotsatzen zerbitzu publiko berrien eta laguntza-sare berrien bidez helburu sozialak bilatzeaz.

Aztertu dugun bezala, hirurogeiko hamarkadaren amaieran, kapitalismo globala egoera kaotiko batean erortzen ari zen. Gerraosteko garaian errotutako kapitalismoak, kapitalaren eta Estatu interbentzionista baten bitartekaritzari esker egindako lanaren arteko itun zail batean zuen indar handiarekin, zeinak arreta handia jarri baitzuen arlo sozialean (hau da, laguntza-programetan) eta banakako soldatetan, jada ez zuen funtzionatzen. Lehendik zeuden sistemak agortuta zeuden, eta berehala beste aukera bat behar zen kapital-metaketa prozesua berriz hasteko. Krisi ekonomikoak Atlantikoaren bi ertzak astindu zituenean eta keynesianismoa erortzen hasi zenean, printzipio neoliberalak zabaltzen hasi ziren kultura menderatzailean.

Paketearen gainerakoa berehala iritsi zen, Margaret Thatcher eta Ronald Reaganen hauteskunde garaipenen ondoren: aberatsen zergen murrizketa masiboak, sindikalismoaren suntsipena, desarautzea, pribatizazioa edota zerbitzu publikoen hirugarrengotza eta azpikontratazioa. Doktrina neoliberalak ia mundu osoan nagusitu zen eta, sarritan, inolako adostasun demokratikorik gabe. Nazioarteko Diru Funtsearen, Munduko Bankuaren, Maastrichteko Itunaren eta Munduko Merkataritza Erakundearen bitartez. Hala, krisiaren ondorio zuzenetako bat herrialde periferikoen finantzaketa-beharra izan zen, kanpoko maileguek haien zorpetze maila asko handitu zutelarik. Kanpoko zorpetzeak

³⁵ BROWN, Wendy. (2019). “*En las ruinas...*” op.cit., 121-128. orr.

demokratizazio-prozesuak baldintzatzen ditu, eta aurreko orrialdeetan aztertu dugun bezala, oso nabaria izan zen Latinoamerikako herrialde askotan.

Neoliberalismoaren gurasoek ez zuten haien teoria gutxi batzuen azpijoko bezala ulertu, baina berehala bihurtu zen hori. Aro neoliberalaren hazkunde ekonomikoa (1980tik GBn eta AEBetan) aurreko hamarkadetakoa baino nabarmen baxuagoa da, aberatsenei dagokienean izan ezik. Aberastasunaren eta diru-sarreraren arteko desberdintasunak, 60 urtetan murriztu zirenak, izugarri areagotu ziren sindikalismoaren eraispenari, zergen murrizketei, etxebizitzaren eta alokairuaren prezioen igoerari, pribatizazioei eta deserregularizazioei esker.

Energiaren, uraren, trenen, osasunaren, hezkuntzaren, errepideen eta espespeteen zerbitzu publikoen pribatizazio osoari edo partzialari esker, enpresa handiek bidesariak ezarri zituzten oinarrizko baliabideetan, eta errentak kobratu zizkieten herritarrei edota gobernuari.

Neoliberalen askatasuna, orokorrean hitz egiten denean hain itxura ona duena, gutxi batzuen askatasuna da soilik. Sindikatuetatik askatzeak eta negoziazio kolektiboak soldadak murrizteko askatasuna esan nahi du. Estatuko arauetatik askatzeak ibaiak kutsatzeko, langileak arriskuan jartzeko, interes-tasa kaltegarriak ezartzeko eta finantza-tresna exotikoak diseinatzeko askatasuna esan nahi du. Zergetatik askatzeak jendea pobreziatik ateratzen duten birbanaketa-politikatik askatzea esan nahi du.

Baliteke neoliberalismoaren ondorio arriskutsuena ez izatea eragin duen krisi ekonomikoa, krisi sozial eta politikoa baizik. Estatuaren boterea murrizten den heinean, botoaren bidez gauzak aldatzeko dugun gaitasuna ere murriztu egiten da. Teoria neoliberalaren arabera, jendeak gastuaren bidez gauzatzen du bere askatasuna; baina batzuek beste batzuek baino gehiago gasta dezakete eta, kontsumitzaile edo akziodunen demokrazia handian, botoak ez dira modu ekitatiboan banatzen. Horren emaitza klase baxu eta ertainen botere-galera da. Eta boterearen galera eskubideen galera bihurtzen da. Gero eta jende gehiagok ikusten du bere burua politikatik kanporatua.

Hala eta guztiz ere, onartu beharra dago proiektu neoliberalak zerbait mirezgarria izan zuela, bere lehen garaian behintzat: estrategia argia zuen pentsalari eta aktibisten sare koherente batek sustatutako ideia berritzaileen multzoa izan zen, pazientzia handikoa eta iraunkorra izan zena. Reagan eta Thatcherren arrakasta handia sistema politiko bat sortzea izan zen, zeina ondorengoek zeinu politiko desberdina izan arren, jarraitu egin behar izan

zuten, neoliberalismoaren globalizaziora eramanez. Horrela sortu zen neoliberalismo globala, gaur egun gobernu-politika gehienetan nagusi den sistema.

Neoliberalismoaren garaipena ere ezkerren porrotaren isla da. *Laissez-faire* politika ekonomikoek 1929ko hondamendia ekarri zutenean, Keynesek teoria ekonomiko oso bat garatu zuen horiek ordezkatzeko. Keynesianismoa 1970eko hamarkadan amaitu zenean, prest zegoen alternatiba bat. Baina 2008an, neoliberalismoak porrot egin zuenean, ez zegoen ezer. Ezkerak ez du esparru ekonomiko orokor berririk sortu duela laurogei urte baino gehiagotik hona. Lord Keynesengana jotzea porrotaren aitortzen inplizitua da. XXI. mendeko krisirako irtenbide keynesiarrak proposatzea begien bistako hiru arazori jaramonik ez egitea da: ideia zaharren bitartez jendea mobilizatzea oso zaila dela; 1970eko hamarkadan argitara atera ziren akatsak ez direla desagertu, eta, batez ere, ez dutela zer esanik gure estualdirik okerrenari buruz, krisi ekologikoari buruz. Keynesianismoak kontsumoa estimulatuz eta hazkunde ekonomikoa sustatuz funtzionatzen du, baina kontsumoa eta hazkunde ekonomikoa dira ingurumena suntsitzeko eragileak.

Keynesianismoaren eta neoliberalismoaren historiak erakusten du ez dela nahikoa sistema hautsi baten aurka egitea. Alternatiba kongruente bat proposatu behar da.

7. BIBLIOGRAFIA

7.1. LIBURU ETA MONOGRAFIAK

BROWN, Wendy. (2019). *En las ruinas del neoliberalismo*. Traficantes de sueños.

BRIEGER, Pedro. (2002). *De la década perdida a la década del mito neoliberal*. CLACSO, Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales.

CEPAL. (1983). *La Crisis Económica Internacional y su Repercusión en América Latina*.

DOS SANTOS, Theotonio. (1999). *Neoliberalismo: doctrina y política*.

ESCALANTE GONZALBO, Fernando. (2016). *Historia mínima del neoliberalismo*. Turner Publicaciones.

HARVEY, David. (2005). *A Brief History of neoliberalism*. Oxford University Press.

LELART, Michel. (1996). *El sistema monetario internacional*. Acento editorial.

OCAMPO, José Antonio; STALLINGS, Bárbara; BUSTILLO, Inés; VELLOSO, Helvia; eta FRENKEL, Roberto. (2014). *La crisis latinoamericana de la deuda desde la perspectiva histórica*. CEPAL.

PALAFIX GÁMIR, Jordi, ed. (2014). *Los tiempos cambian: Historia de la economía*. Valencia: Tirant Humanidades.

PICHS MADRUGA, Ramón; MUSTER INFANTE, Blanca; COBARUBIA GÓMEZ, Faustino; RODRÍGUEZ ASIEN, Ernesché; COBARRUBIAS HERNÁNDEZ, Katia; JAMES HEREDIA, Jourdy; PÉREZ GARCÍA, José Ángel. (2004). *Los últimos 40 años de la economía mundial*. Centro de Investigaciones de la Economía Mundial.

STREECK, Wolfgang. (2016). *Comprando tiempo: La crisis pospuesta del capitalismo democrático*. Katz editores.

7.2. ALDIZKARI ESPEZIALIZATUETAKO ARTIKULUAK

KOMLOS, John. (2019). “Reaganomics: una línea divisoria”. *Revista tiempo y economía*.

MERCHAND ROJAS, Marco Antonio. (2020). “Desigualdad e Ideología neoliberal antidemocrática”. *Revista Kavilando*.

ROLANDO MOLINA GONZÁLEZ, Jorge. (1984). “Algunas implicaciones político económicas de la crisis petrolera mundial”. *Revista estudios*.

THORNLEY, Andy. (2003). “El caso británico: del thatcherismo a la Tercera Vía”. *Urban*.

WARNER, Mildred E. (2017). “De la competencia a la cooperación: reformas de la administración pública para ciudades sostenibles”. *Revista del CLAD Reforma y democracia*.

7.3. DATU BASEAK

Federal Reserve Bank of St. Louis, series GINIALLRH.

https://www.researchgate.net/figure/The-Gini-Index-of-Pre-Tax-Income-Source-Federal-Reserve-Bank-of-St-Louis-Income-Gini_fig9_332067632

OCDE, Economic Outlook Database. <https://data.oecd.org/unemp/unemployment-rate.htm>

OCDE, Economic Outlook Database.

<https://data.oecd.org/price/inflation-cpi.htm#indicator-chart>